



Zer finantzatu dezakezu POCTEFA 2021-2027an?

NAVARREFA 2021-2027 BIGARREN EKITALDIA

#NavarreInEurope

Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



Europako Lurralde Lankidetzarako Interreg VI-A
Espainia-Frantzia-Andorra POCTEFA 2021-2027
Programak mugaz haraindiko lankidetzeta-proiektuak
finantzatzen ditu **bost helburu politiko
handiren inguruan.**

Gida hau NAVARREFA 2021-2027* bigarren
ekitaldirako prestatu da, eta programa horren
barruan Nafarroako Foru Komunitatean **finantzatu
daitezkeen gai eta proiektuen tipologia
zehatzari buruzko informazioa** ematen du.

(*) POCTEFA programari buruzko informazio,
kapitalizazio eta sare-lanerako nafar foroa da
Navarrefa; Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza
Nagusiak sortu du.

Nafarroako Gobernua

Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia

Eskualde arteko Lankidetzaren eta Kanpoko Herritarren Zerbitzua

(+34) 848 42 19 81

<https://poctefa.navarra.es/eu/>

cooperacion.transfronteriza@navarra.es

Yanguas y Miranda kalea 27, 1.a - 31003 Iruña

Kudeaketa Agintaritza — POCTEFAren Idazkaritza Bateratua

Pirinioetako Lan Komunitatearen Partzuergoa

+ 34 974 363 100

info@poctefa.eu

POCTEFA 2021-2027 Programaren dokumentazio ofiziala

<https://www.poctefa.eu/>

LG NA 592-2023

Lankidetzarako aukera bat

109.275

KM²-KO AZALERA

14

MILIOI BIZTANLE

243

MILIOI EUROKO AURREKONTUA

Europako Batasunak Eskualde Garapeneko Europako Funtzaren bidez (EGEF) POCTEFA 2021-2027rako emandako zenbatekoa da. Aurreko aldian baino 54 milioi gehiago da. Zenbateko horretatik, 227 milioi euro mugaz haraindiko proiektuak garatzeko erabiltzen dira, eta gainerakoa Programa kudeatzeko Laguntza Teknikorako (LT) erabiltzen da.

65%

PROIEKTUEN FEDER
FINANTZIAZIO-TASA

Salbuespenak daude Estatuaren laguntzei lotutako entitate eta jardueretarako.

HAU DA PROGRAMAREN PERIMETRO HAUTAGARRIA (FINANTZAGARRIA)



Entitate publiko eta pribatuentzat

Nortasun juridikoa duten entitate edo erakundeentzat da, publikoak zein pribatuak (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).


Gutxienez bi estatutako bazkideak

Gutxienez bi estatutako (ES-FR-AND) bazkide direnek osatuko dute proiektuen lankidetzeta.

Proiektuen hautapena deialdi publikoen bidez

Proiektuak deialdi publikoen bidez hautatzen dira. Proiektu bat aurkeztu nahi duten entitate sustatzaileek deialdi bakoitzeko data eta irizpideetara egokitu behar dute eta www.poctefa.eu webgunean argitaratuko dira.

HP1



Europa adimentsuagooa



Ikerketa eta berrikuntza

- » Ikerketa-sareak.
- » Mugaz haraindiko RISaren sektoreak.
- » Mugaz haraindiko mailako balio-kateak.
- » ETEek berritzeko duten gaitasuna handitzea.
- » Ikerketa-zentroen eta enpresen arteko lankidetzak.
- » Ikertzaileen mugikortasuna.
- » Garapen jasangarria eta erantzukizun soziala I+G+Bn.
- » Natura babesteko ekintzak, energia berriztagarriak eta ura.

Digitalizazioa


- » Teknologia digitalak administrazioan, enpresetan eta herritarrentzat, modu seguru eta inklusiboan.
- » Administrazio elektronikoko sistemen elkarreragingarritasuna
- » Pertsonen eta erakundeen gaitasun digitalak.
- » Digitalizazioa landa- eta mendi-eremuetan, eta desabantaila sozioekonomikoak dituzten kolektiboetan.
- » Big data, adimen artifiziala, sensorizazioa eta teknologia aurreratuak ingurumen-soluzioetarako.

ETEen hazkunde jasangarria

- » ETEen lehiakortasuna ekintzailetzaren, enpresa-eredu berrien eta praktika berritzaileen trukearen bidez.
- » Enpresaren eta enplegua sortzen laguntzen duten beste erakunde batzuen arteko trukea eta lankidetzak.

Europa berdeagoa

HP2



Klima-aldaketa eta hondamendien arriskuaren prebentzioa

- » Tresnak arriskuak prebenitzeko.
- » Elkartrukeak zaintza eta alerta goiztiarrerako.
- » Lurraldeak birsortzea.
- » Arrisku-planak ibai-arroetan.
- » Erakundeak eta herritarrak arriskuei eta klima-aldaketari buruz prestatzea eta kontzientziatzea.
- » Estrategiak klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko.
- » Azterlanak eta irtenbideak naturan klima-aldaketara egokitzeko.

Ura eskura

- » Hondakin-uren teknologia jasangarri berriak.
- » Ekonomia urdina.
- » Baliabide hidrikoen erabileren, plangintzaren eta kudeaketaren gobernantza partekatua.
- » Uraren Esparru Zuzentaraua aplikatzea.
- » Klima-aldaketa arintzeko ekintzak baliabide hidrikoetan.
- » Uren erabilera jasangarria.
- » Gizakien eta ingurumenaren osasunerako arriskuak minimizatzea.

Ekonomia zirkularra

- » Jarduera bateratuak produktuen iraunkortasuna, berrerabilpena, konponketa eta birziklapena hobetzeko.
- » Lankidetzak ekonomia zirkularreko estrategietan.
- » Zirkulartasuna industria-prozesuetan.
- » Sistema bateratuak hondakinak bildu eta kudeatzeko.
- » Erakundeak eta herritarrak ekonomia zirkularraz kontzientziatu eta sentsibilizatzea.

Naturaren babesa eta kontserbazioa

- » Estrategia berdeak harmonizatzea.
- » Tresna bateratuak natura zaintzeko.
- » Sareak eta gobernantza bateratua sortzea ingurune naturalaren kudeaketan eta berreskurapenean.
- » Eremu Naturalen Europa Barneko Sarean laguntzea.
- » Prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazioa natur ingurunearekiko.
- » Lurzoru eta espazioak zaindu eta lehengoratzeko, jende asko ibiltzen denean haietan.



HP4



Europa sozialagooa



Inklusioa lan-merkatuan

- » Lan-merkatuak eskatutako kualifikazioak estaltzea.
- » Laneratzea mugaz haraindiko enpleguaren bidez.
- » Lankidetzaren lan-merkatuan hobeto integratzeko.

Berdintasunezko sarbidea hezkuntzara eta prestakuntzara

- » Koordinazioa eta harmonizazioa prestakuntza hobeto integratzeko.
- » Prestakuntza-ekimenak kolektibo ahulen gizarte- eta lan-bazterketa saihesteko.
- » Ikastetxeen arteko lankidetzaren hezkuntzaren arloan.

Inklusio sozioekonomikoa jarduketa integratuen bidez

- » Landa-kolektiboentzako prestazioak eskuratzea.
- » Estrategiak arrisku sozialeko egoerak prebenitzeko eta artatzeko.
- » Kolektibo ahulen gizarteratzea.
- » Azterketa eta metodologia bateratuak integrazioari laguntzeko.
- » Ekonomia sozial eta solidarioa eta berrikuntza sozialeko soluzioak.
- » Mugaz haraindiko gailu, azpiegitura eta erabilera partekatutako, gizarte- eta osasun-arlokoak.

Berdintasunezko sarbidea osasun-laguntzarako

- » Menpekoei laguntzeko praktikak trukatzeko.
- » Ohitura osasungarriak eta zahartze aktiborako ekintzak sustatzea.
- » Plataformak eta sareak arreta soziosanitariorako.

Kultura eta turismo jasagarriak

- » Eskaintza turistikoa jasagarria eta soziala, garraioa barne.
- » Eskaintzaren irudia helmuga seguru gisa.
- » Trantsizio digitala.
- » Nazioartekotzea.
- » Desestacionalizazioa.
- » Segurtasun turistikoa mendian.
- » Tokiko kulturaren balorizazioa.
- » Kultura-entitateen finantza-autonomia.
- » Sortzaileak ikusaraztea.
- » Bauhaus berria.



HP5



Europa hurbilagoa




Mugaz haraindiko espazioa lurraldearen, gizartearen eta ekonomiaren aldetik egituratzea

Mendebaldeko Gune Funtzionala (Pirinio Atlantikoetako zati bat, Euskadi eta Nafarroa)

- » Biztanleriari eustea.
- » Hizkuntza-hesia gainditzea eta euskara hizkuntza komun gisa sustatzea.
- » Pertsonen eta zerbitzuen mugaz haraindiko mugikortasuna hobetzea, eta lurraldearen babesa bermatzea.

ISO1



Gobernantza hobea

GAI FINANTZAGARRIAK

Mugaz haraindiko eremu integratuagoa

- » Datu-bilketa.
- » Oztupoak identifikatu eta gainditzea.
- » Lankidetzeta-egiturak finkatzea.
- » Jokabide egokiak.

